



Zure baitan. Está en ti.

Irakaskuntzako hauteskunde sindikalak

Emaitzen balorazioa

2015/03/11

PO : UNIBERTSITATEKO ETA UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOKO HAUTESKUNDEETAKO EMAITZEN LEHEN BALORAZIOA.

- 1.- Gure zorionak erakunde sindikal guztiei, bereziki STEE-EILAS irabazleari unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan eta LAB sindikatuari, hezkuntza-alor osoan.
- 2.- Gure eskerrak prozesu honetan esku hartu duten guztiei, bere bozkaz, euskal Irakaskuntza publiko guztiaren lan-interesak defentsan sindikatuak eginiko lana onartzea erabaki dutelako.
- 3.- Eskerrik bereziena hautagai zerrenda ezberdinetan bere konfiantza jarri duten lankideei, CCOO Irakaskuntzari bere botoa emanez.
- 4.- Gure kritikarik handiena Hezkuntza Sailari ez baita hauteskunde prozesuaren garapen zuzenari laguntzeko gai izan, eta ez baita hauteskunde mahaietako ikuskatzaileei ordezkaririk jarri.
- 5.- Esku hartze urria damu dugu (unibertsitatez kanpokoan %40,9; unibertsitatean %47,6) , sindikatuen lanarekiko nahitasunik eza erakusten baitu. Agian, uste oker baten adierazgarri izan daiteke, lan-eskubideak defentsa etengabea behar ez duten lorpenak direla.
- 6.- Zenbait sektoretako emaitzak ez dira aski onak CCOO Irakaskuntzarentzat; baina honek ez du esan nahi ez gaudela pozik sindikatuan egunero egiten dugun lanarekin. Dena den, ordezkarikopuruari dagokionez, gutxi gorabehera orain 4 urte ateratako emaitza berberak dira. (ordezkari bat gutxiago).
- 7.- Pozik unibertsitatean lortutako emaitzekin (CCOO Irakaskuntzak 3 ordezkarikopuru gehiago lortu ditu, bere kuota nabarmen igotzen du, Irakasle Ikertzaileen taldean eta AZPea) eta baita unibertsitatez kanpoko laboralen sektorean, taldearen nahitasunik ezako une larrietan egoerari eutsi egin diotelako.

Bilbon, 2015eko martxoaren 11an